

## Zuzendaritza

### Aitor Onaindia Bereziartua

**BASOA FUNDAZIOA**

*Zuzendari teknikoa*

Euskal nekazari-familia batetik etorrira, txikitatik nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzan aritu izan da. Hainbat urte atzerriko unibertsitate eta erakundeetan (Frantzia eta Txile) mendi-ingeniari gisa ikasten eta lanean aritu ondoren, azken 18 urteak Euskadiko baso-kudeaketa iraunkorraren garapenean murgilduta daramatza. BASOA FUNDAZIOan orain 9 urte barneratu zenetik, orain zuzendari tekniko modura, basozientziaren dibulgazioan eta basoek gizarteari eskaintzen dizkioten hainbat zerbitzu ekosistemikoak sustatu eta konpentsatzeko proiektuak gauzatzen diardu.

### Leire Salaberria Isasi

**USSE**

*Zuzendari kudeatzailea*

Prestakuntzaz nazioarteko abokatu merkantilista izan arren, baso tradizioko familia batekoa da, eta, 2014az geroztik, Hego Europako Basogile Elkarteko (USSE) Zuzendari-Kudeatzailea da, basojabe pribatuen nazioarteko erakundea, beren jarduera nagusia Europako eta nazioarteko basopolitika definitzen laguntzea duena, nazioarteko foro garrantzitsuetan jarrera, ordezkaritza eta sektoreen arteko elkarrizketaren bidez, Europako hegoaldeko basoen ikuspegia eta eskariak erabakiforoetan azalduz, —Europako Batasuna, FOREST EUROPE, Nazio Batuak, COFO-FAO—, baita sektoreko beste erakunde batzuekiko elkarrizketaren eta lankidetzaren bidez ere.

Matrikula: [www.uik.eus](http://www.uik.eus)

Informazioa gehiago

**UDA IKASTAROAK / CURSOS DE VERANO / SUMMER COURSES**

Miramar Jauregia - Mirakontxa Pasealekua - 4820007 Donostia /San Sebastián  
T.: 943 219511 - [info@uik.es](mailto:info@uik.es) - [www.uik.es](http://www.uik.es)

**Antolakuntza Batzordea / Comité Organizador / Organising Committee**

Fundación  
**BBVA**



## Hizlariak

### Mikel Hurtado

Ikasle aurre doktorala NEIKER-BRTAN

### Iñaki Iriarte Goñi

Historia eta Erakunde Ekonomikoetako katedraduna  
Zaragozako Unibertsitatean (UNIZAR)

### Alejandro Cantero Amiano

Baso atalean teknikaria  
HAZI Fundazioa

### Juan Ramon Murua Mujika

Ohorezko irakasle laguntzailea Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Enpresa Ekonomia Fakultatean

### Michel Colombet

Ingeniari aholkularia  
La forêt ensemble

### William Morrison

Kostaldeko barrutiko basogile/administratzailea  
Soper-Wheeler Company, LLC

### Antoine De Boutray

Paueko zuzendari departamental  
Office Nationale des Forêts (ONF)


### Roque Rodríguez Soalleiro

Basogintzako irakasle katedraduna  
Santiago de Compostelako Unibertsitatea (USC)



# KONIFEROEKIN BASO LANDAKETAK: Zein aukera dago ?

Uztailak 11 – 12



Kodea: **Z13-22**

Ekintza mota: **Uda ikastaroa**

Arloak: **Ekonomia eta enpresa / Zientzia eta teknologia / Iraunkortasuna**

Kokapena: **Miramar jauregia**

Hizkuntza: **Gaztelera**

Balio akademikoa: **20 ordu**

**Beste babesle batzuk:**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN,  
JASANGARRITASUN  
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD  
Y MEDIO AMBIENTE

## Azalpena

*Udako ikastaro hau presentziazkoa izanen da. Baina, nahiago izanez gero, on line zuzenean ere parte hartzeko aukera dago.*

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, munduko askok, batez ere Europak, batetik egurrez hornitzeko eta bestetik garaiko lurzoruaren higadura arazoei aurre egiteko, baso-landaketen azalera asko handitu zuten. Helburu horretara zuzendutako espezie gehienak koniferoen taldekoak izan ziren. Euskadi ez zen dinamika horretatik urrundu. XX. mendean zehar ezagutu duen baso-azaleraren hazkunde handia, koniferoen taldeko zuhaitzen landaketak eragin du. Gaur egun, konifero egurrarekin diarduen sektorearen egoera orokorra ona da mundu osoan. Helsinkin egin zen Koniferoen Nazioarteko 69. Konferentziaren ondorioa erabatekoa izan zen: Europan koniferoen egur ekoizpen eta kontsumo bilakaerak 2021ean inoiz baino gehiago haziko zela iradokitzen zuen (2020an baino % 6-7 gehiago). Klima-aldaketa arintzen egurrak duen ahalmena gero eta gehiago onartzeak eta eraikuntza-material gisa egurraren merkatu-kuota handitzeak, etorkizunean mota horretako espezieen kudeaketa oparua izango dela adierazten dute. Hala ere, zantzu hain oneko egoera honek oztopo kezagarriak ere baditu, batez ere lehengaien hornidurari dagokionez: Etorkizuneko egur-kontsumoa ekoizpena baino gehiago haztea espero da, eta horrek azpiko eskaera handia ekar dezake. Errusiako enborrak esportatzeko berehalako debekuak (2022ko urtarrilean sartuko da indarrean) enborreko koniferoen zuraren mundu-merkatua aldatuko du ziur aski, eta presio handiagoa eragingo dio Europako hornikuntzari. Egurra erabiltzearen klima-onurak ondo onartuak dauden arren, Europako Itun Berdearen esparruan EBk proposatutako estrategia berrietako batzuek, lehengaiak mobilizatzeko arazoak ekar ditzaketzen administrazio-politikak sor araz ditzazkete. Politika hauek, sektorearen alderdi ekonomikoak eta hornikuntza-beharrak behar bezala kontuan hartu gabe, basoen ingurumen-funtzioari begiratzeko diote bereziki. Klima-aldaketak ere eragiten die basoei, eskala handiko kalteak (baso-sute larriak, intsektu inbaditzaileak eta gaixotasunak, haizete zabalak eta abar) gero eta zaurgarriagoak direlarik. EAEko basogintza-sektorea, batez ere koniferoen egurra ekoiztu eta eraldatzera zuzendua, merkatu global horien egoera eta bilakaerarekin mesedetua suerta daiteke. Baina oztopo erabakigarri berak ere baditu. Egungo konifero-masen osasun-arazoen aurrean, zer beste aukera daude? Zein koniferorekin jarrai dezakegu kudeatzen eta zein merkatu-irteera eskainiko dizkigute? Bi eguneko ikastaro batean, lehenik koniferoen ezaugarri orokorrak aztertuko ditugu, eta, ondoren, Euskadin gaur egun interes handiena duten konifero espezieen aukerak zehaztuko ditugu. Bi azterketa-esparru horiek maila goreneko ezagutza zientifikoa oinarrituko dira.

## Helburuak

Basoberritzeak egin eta egur merkatuak hornitzeko koniferoen hautaketaren arazoak eta beraien historia aztertzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan koniferoen baso-azaleraren egungo egoera eta zuraren merkatua aztertzea.

Gaur egun Euskadin dauden baso-berritzeetan interes handiena duten konifero-espezie nagusien basogintza eta merkatu-irteerak aztertzea.

## Egitaraua

### 1. EGUNA / Uztailak 11

09:00 - 09:15

Inaugurazio instituzionala  
Juan Ramon Murua  
Basoa Fundazioko lehendakaria

09:15 - 10:00

**Koniferoen landare-garapena**  
Mikel Hurtado  
NEIKER-BRTA

10:00 - 10:45

**Koniferoen landaketen historia**  
Iñaki Iriarte Goñi  
UNIZAR

10:45 - 11:15

Geldiunea

11:15 - 12:00

**Koniferoen landaketen egungo egoera Euskadin**  
Alejandro Cantero Amiano  
HAZI

12:00 - 12:45

**Koniferoen zuraren eskaria merkatuetan**  
Juan Ramon Murua Mujika  
UPV/EHU

12:45 - 13:50

**Konifero-sailen zalantzak eta interesa**  
Mahai-ingurua aurreko hizlarien artean

13:50 - 14:00

Jardunaldiaren laburpena

### 2. EGUNA / Uztailak 12

09:00 - 10:00

***Cryptomeria japonica*ekin landaketak**  
Michel Colombet  
La forêt ensemble

10:00 - 11:00

***Sequoia sempervirens*ekin landaketak**  
William Morrison  
.Soper-Wheeler Company, LLC

11:00 - 11:30

Geldiunea

11:30 - 12:30

**Zedroekin landaketak**  
Antoine De Boutray  
ONF

12:30 - 13:30

**Itsas pinuarekin landaketak**  
Roque Rodríguez Soalleiro  
USC

13:30 - 13:45

Jardunaldiaren laburpena